

LAMINAGAKO LAMIAK

Gernika-Lumoko kondaira zaharra

Gernika-Lumon badago Laminaga deituriko lekua. Hortik igarotzen den erreka ere izen hori hartzen du.

Paraje horretatik ibiltzeko orduan jendea beldurrez zebilen. Bertakoek kontatzen dutenez Laminagako erreka gurutzatzeko momentuan zuzeriaz eta arretaz ibili behar zen, lamiak oso erraz agertzen baitziren. Pertsona batek horrelako batekin topo egiteko bezain besteko zoritxarra bazuen lamiak ondokoa esaten zioten:

- Oinetakoak kenduta pasa behar duzu.

Norberari zerbait pasatzeko beldurra handia zenez, den-denek egiten zieten kasu.

Vicente del Palacio eta beste batzuk.

Historia de Lumo

Gernikazarra Historia Taldea

Gernika-Lumo, 1999